

Alegoria moduko bat [*Mohamed eta parroko gorria*, 2000]

Javier Rojo

Ipar Atea, 2001.

Martin Ugaldere azken nobelak *Mohamed eta parroko gorria* du izena. Argumentua gerra zibilaren garaian kokatuta dago eta dudarik gabe, bitxitasun puntu bat ere badauka. Izan ere, eleberririk honetan Mohamed izeneko mutil marokoarraren istoria kontatzen da, zeina, bizitzaren gora-beherek hala bultzatuta, gerra zibilaren hasierak Euskal Herrian (Bilbo inguruan) harrapatzen baitu, koartel bateko militarrentzat zerriak zaintzeaz arduratzen delarik. Istorio honek ematen duen lehenengo inpresioa sinesgarritasun ahularena da, batez ere istorioan agertzen diren hainbat elementuk motibazio txikia dutela baitirudi. Bestaldetik, istorio zatikatu honetako elementu gehienak betetzen duten funtzioagatik baino gehiago sinbolo moduan hartzen duten baliogatik aukeratuta daude: pertsonaien lanbideak, eguraldia bera, jaten dutena... dena sinbolo sare batean bilduta dago, ia-ia alegoria moduko bat sortzeko punturaino.